

# TOKIKOM Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko apirila • 278. alea

## ELKARGUNEA

- Bestelako bizi ereduak saltzan
- Komunitatea herriko erara
- Elkartasun nahaskia
- Babesa labean eginda
- Auzolan kroketak
- Indibidualismoa frijitua  
(Agortuta)



# EPOCA-GORO

San Juan, 5. Elbar - 943 700 216 - [www.epocasukaldeak.com](http://www.epocasukaldeak.com)  
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



# Online eta Offline kontuak



Aitor Madrid Markel Arizaga

**K**aixo Markel, aspaldiko! Gero eta nabariagoa da, aspalditik gainera, teknologia berriek gure bizimoduan duten eragina. Inoiz baino konektatuagoak gaude elkarrekin eta informazio ugari daukagu eskura. Baina benetan guzti horrek bizitza hobe bat dakarkigu? Lagun ugari, tresna ezberdinen erabilera erraz eta merkeaz jabetuta oso modu desegokian dihardute hauek erabiltzen. Eta gauza guztien erabilerak beti bere alde ona duen legez bere alde txarra ere badu. Eta sarri ez gara konturatzen horretaz. Gazteen artean jazarpen kasuak gertatu izan dira, *ciberbullying* ospetsua, eta ondorio larriak izan dituzte batzuetan. Bere buruaz beste egin du gaztetxo batek baino gehiagok. Norberaren pribatasuna ondo zaintzen al dugu eskuko telefono berriak erabiltzerakoan? Ziur nago, makina horien erabiltzaile bat baino gehiago

**“Norberaren pribatasuna ondo zaintzen al dugu eskuko telefono berriak erabiltzerakoan?”**

harrিতa geldituko zela bere datu pribatu asko agerian dituela jakingo balu. Eta zer esan eguneko 24 orduak konektatuta egoteak dakarren estresaz? Tamalez, era horretan sarera konektatuta egoteak, goiz edo berandu, dependentzia kasuak agerian utziko dituelakoan nago.

Honen aurrean zer egin? Sarean ibiltzea eta lagunekin harremanetan egotea ondo dago baina tresna hauek erabiltzerakoan, bizitzako beste alor batzuetan darabilgun jokabidea izan beharko genuke kontuan. Txarra da egun guztian zehar soinketa egiten aritea eta ez da ona uneoro telefonoz berbetan jardutea; tresna hauen erabilera ere neurtu beharko genuke orduan. Horretarako hainbat neurri har litezke baina nik uste eraginkorrena, egunean zehar hainbat orduetan deskonektatu beharraz jabetzea dela.

**I**epa Aitor! Teknologia berrien aurrerapenek aldaketa sozialak dakartzate. Askotan gainera, teknologian garapena gure pentsatzeko modua baino azkarrago doa eta honek eztabaida etiko asko ipintzen ditu mahai gainean.

Internet eta bere inguruan sortu den parafernalia guztia honen adibide da. Sareak aldaketa asko ekarri ditu; orain etengabeko informazio gaindosa eta konektatuta egoteko ahalmena ditugula esaterako. Eta ingurunea aldatu egin denez, gure jokamoldea ere aldatu egin da.

Ohitura hauetako asko ez ditugu ulertzen, gurasoek beren seme-alabak prakak belaunetan eramatea ulertzen ez duten moduan. Zaharkitzen gauden seinale?

Arrazoa daukazu teknologien erabilera kaxkarrak hauek dakartzaten abantailak ezabatzen dituela esaten duzunean. Gizartean sartzen diren aurrerapenak, existitzen diren ohiturak hobetzeko eta ohitura interesgarri berriak sortzeko balio behar du, eta inoiz gure ohitura jatorrak ezabatzeko.

**“Bakoitzak aukeratzea dauka nola estresatzea nahi duen”**

Aipatzen duzun deskonektatzeko behararen inguruan nik ez dut esango zer egin eta zer ez, bakoitzak aukeratzea dauka nola estresatzea nahi duen. Ikasi behar duguna da teknologia berriak benetan balio duten moduan erabili behar ditugula. Zertarako nahi dugu mugikorrean komunikazio tresna aparta izatea, gailu berberak “bizitza errealean” lagun guztiekin kontaktua galtzera eramaten bagaitu?

## Gutunak

**Alberto Barandiaran** Elkartasuna Lander Arbelaitezkin

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarrekin (Pil-pilean ere bertako partaide da) elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaitez *Argia* aldizkariko kazetariari, AskeGunea hustutzeko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta.

Hekimeneko kide sortzaileetako bat da *Argia* aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartean. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaitez informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen, Ertzaintzak eskuan zeukan akreditazioa kontuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezegokizat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarrizteko. Kazetarien oinarriko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi duten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

**Soraluzeko** Nekez uzten du bere sorterria, sustraiak han dituenak

Gazteria

Igaro dira 3 urte Sabinekin bere urtebetetze eguna ospatu ezin dogunetik. Apirilaren 11n berarekiko elkartasuna adierazteaz haratago, urte osoan zehar daukagu bera goguan.

Ideiengatik borrokatzearen estatuaren zapalkuntza jasan bihar izan dabe askok. Sabinekin lau urte eta erdiko kartzela zigorraren aurrean aske izatea erabaki zeban, nahiz eta jakin erabaki hau hartzea zaila izango zela. Erabaki honek ustekabe harrapatu gintuan denoi, gaztetxe kide bezala agurtzeko aukerarik izan bare.

Asanbladako kideontzat pertsona garrantzitsua izan da, urte guzti hauetan gurekin jarraitu zeban bakarrenetako bat izan zalako eta hasieratik ezjakintasun eta zalantzen aurrean, beraren laguntza ezinbesteko izan gendualako.

Gainera eskertzekoa da zetorkion guztia jakin arren, azken egunera arte gurekin lanean egon izana. Juan zanetik konturatzen gabiz asanbladan utzi daben hutsuneaz. Bere barre, garrasi, bronkak, pozak, aholkuak... faltan izan ditudugu azken urtietan.

Honekin Sabinen eta beste hainbat erreprezentatuen egoera salatu nahi dogu, eta gure elkartasuna helarazi.

Espero dogu ahalik eta azkarren gure artian egotia.



## Bittartetik



Guritze Arizabarreta

## Bata, bestea ala biak?

Udaberriko doinuak eta eguzki epelaren lehen printzak lagun nituela heldu nintzen parkeko eserleku batera. Gustuko nuen bertan atsedean hartu eta inguruko jendearen gaineko istorioak imaginatzea. Egun horretan, pareko eserlekuak eman zidan atentzioa, edo hobeto esanda, bertan eserita zeuden emakumeak. Berrogei urte inguru izango zituen lonek, laurogei bat, berriz, Kontxak. Irakurtzen zeuden, ebook txiki bana eskuartean hartuta, istorioak irudikatzen, ni bezala, baina beste modu batean. Imaginatu nuen orduan, ze aurpegi jarri zuten ebook hori erregalatu zioten egunean. Ordura arte hain gustura bizi ziren biak paperezko liburuekin. Zenbat maite zuten hauetan barneratzea, bizitzea! Istoriek orriekin batera egiten zuten aurrera, atalez atal, orri orri eta geratzen zen orri kopuak bukaera gertu zegoela iragartzen zien. Baina urtebetetze egun batean, espero ez zuten opari bat agertu zen kolore bizidun paper batean bilduta, liburu elektronikoa? Harriduraz hartu zuten tramankulu txikia eskuetan, nola piztu ere ez zekitela. Baina gure bikotea ez zen gauza berriei ezetz esatearen zale. Ateak zabalik zizutzen eta, horregatik ohitu ziren bide lagun berri horretara. Hurrengo egunetan, grinaz eta irrikaz irakurtzera eseri ziren parkeko eserlekuan, eskuarteko euskarria aldatuta baina betiko emozio berarekin. Zorionsu ageri ziren biak, ulertzen zutelako zein garrantzitsua zen etorkizunaren trenari aterik ez ixtea eta bazekitelako beraien gau mahaitxoan paperezko liburuak bizirik iraungo zuela. Izan ere, hainbeste maite zuten irakurtzea...!

# “Gaztetxokoa gazteek eraikitako gunea izatea nahi dugu”

**Mireia Lamariano eta Goretzi Goiozana**  
Gaztetxokoko hezitzaileak



Mireiak eta Goretzik Gaztetxokoko ardurari ilusioz heldu diote.

Herriko nerabeei zuzendutako Gaztetxokoak aurreko domekan zabaldu zituena ateak eta ekainera bitartean, domekero zabalduko da, 17:00etatik 20:00ra. Pil-pilean eta udalak hala hitzartuta, Kukumixo Aisialdi Taldeak hartu du beregain gunea bera dinamizatu eta gazteekin elkarlanean eraikitzeko ardura. Hain zuzen, Mireia eta Goretzi izango dira gazteekin esku-hartzeko zuzena izango duten bi hezitzaileak.

**Harrera ezinhobeia izan du Gaztetxokoak, ezta?**

Bai, hogeita hamabost gazte batu ziren domekan eta gunea bere egiteko gogotsu daudela ikusten zaie. Aspalditik dakigu herriko gazteenek aisialdiaz disfrutatzen direla baten beharra zutela eta proiektu honekin, bete-betean asmatu dugu.

**“Ez dugu Gaztetxokoko proiektua lau pareten artera mugatu nahi”**

**Zeini dago zuzenduta? Zein ordutegi izango du?**

Soraluzeko DBHko maila guztietako ikasleek hartu dezakete parte. Apiriletik ekainera domekero zabalduko dugu, 17:00etatik

**“Hezkuntza ez-formaletik abiatutako aisialdi eskaintza euskaldun eta parekidea plazaratuko dugu”**

20:00etara eta urritik aurrera zapatu eta domeketan egongo da zabalik.

**Herriko gazteek zer topatuko dute bertan?**

Giro atsegina eta ekintza dibertigarriekin asteburuei kutsu eraikitzailea emango diegu. Momentuz, lau gunek ditugu. Batean “Topagunea” edo lasai egoteko tokia, beste batean eskulanak, dinamikak, tailerrak... egiteko lekua, hirugarren txokoa ordenagailuak daude eta azkenik, terraza. Ping-pong mahaia eta futbolina ere baditugu, korridore ludikoan.

**Zein ekarpen egingo dio Gaztetxokoak herriari?**

Ez dugu Gaztetxokoko proiektua lau pareten artera mugatu nahi. Gaztetxokoa herriko gazte ezberdinak elkartu eta euskaraz jolastu nahiz gazteen kezka eta interesei bide emateko gunea izatea nahi dugu. Hortaz gain, kaleko ekintzak ere egingo ditugu: irteerak, tailerrak, frontoian hainbat

txapelketa, herritik zehar jolasak... Asmoa da herriko gainontzeko eragileekin elkarlanean aritzea, gaztetxearekin, dantza taldearekin edota ludotekarekin esaterako.

**Bihar goizean gurasoentzako bisita gidatua antolatu duzue. Zein helbururekin?**

Gaztetxokoa eta proiektua ezagutzera emateko aprobetxatu nahi dugu baina gurasoak ez ezik, jakinmina duen edonor dago bertara gonbidatuta, 11:00etan kiroldegiko goiko aldean batuko gara.

**“Harremanak, konfiantza lantzen eta gazteen ahalduntzea sustatzen eraiki nahi ditugu”**

**Hezitzaile moduan, zein paper beteko duzue zuek?**

Ekintzak dinamizatu eta gazteekin batera, gazte problematikak lantzeko ardura izango dugu baina argi laga nahi dugu ez garela irakasleak izango. Gaztetxokoa bi lagun gehiago izaten saiatuko gara eta harremanak, konfiantza lantzen eta gazteen ahalduntzea sustatzen eraiki nahi ditugu.

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Badakizu errenta aitortzea euskaraz egiteko aukera duzula?  
Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu,  
zeinek egingo du ba?  
Euskaraz, zeure aukera da!

**aukeran euskaraz!**

aurten

**500**

baietz!!



ERRENTA  
2012

# Hamasei lagun dependentziako lan-ikastaroan

Enpleguasustatzeko Debabarrenean garatu den Enplegu Planak Soraluzei, bailara mailan langabe tasa altuena duen udalerriazategatik, formazio programabataratzeko dirulaguntza esleitu dio udalari, eta



Formaziorako eskolak antzokian.

udalak dependentziadun pertsonak artatzen laguntzeko 300 orduko ikastaroa jarri du martxan. Asmoa "herritarrei lan-merkaturako sarbidea erraztu eta lana aurkitzeko aukerak handitzen laguntzea" da, eta dagoen lan eskaintza handiagatik aukeratu dute arlo hau. Ikastaroan hamasei lagunek eman dute izena, eta klase teorikoez gain, egoitzetan praktikak ere egingo dituzte.

**Ikastaro gehiago langabetuendako** Iraila bitartean, 129 lagunendako bederatzirestakuntza ikastaro eskainiko dituzte Debabarreneko Enplegu Planaren barruan: animaliekin interbentzioak, gaitasun ekintzailea, eraikuntza... Ikastaroetan parte hartzeko ezinbestekoa da Debabarrenean erroldatuta egotea eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea. Informazio gehiago Eibar (943 127 239) edota Elgoibarko (943 744 425) bulegoetan.



## Motzean

### Jubilatuak Iruñara bisitan

Apirilean Iratxeko herria bisitatu zuten eta maiatzaren 15erako Iruña ezagutzeko txangoa antolatu dute. Goizeko 8:00etan abiatuko dira autobusez, eta bisita gidatuaren ostean, bazkaria, bingo jokoak eta dantzaldia izango dituzte.



### Gerrako memoria ekitaldia

Soraluze 1936 Lan Taldeak gerra garaiko memoria aldarrikatzeko ekitaldia burutu zuen apirilaren 14an. Errepublikako bandera eta ikurriña ondoan hartuta, gerra sasoiari "gertatutakoa oroitu eta zabaltzen jarraitzeko konpromisoa" adierazi zuten bertan batu zirenek. Herritarrekin batera, alderdi politikoetako ordezkariak izan ziren ekitaldian; Bildu, EAJ eta PSE-EE.



## FotoNotizia



### Egoitzako aittitta eta amamen eskulanak

Bihar itxiko da Mesedeetako Amaren Egoitzako erakusketa. Bertan, 2009az geroztik aittitta-amamek egindako eskulanak daude ikusgai; margolanak, fruta-ontziak, bandejak, bitxiontzia... Erakusketa hunkigarria, tartean zendu diren pertsonen lanak ere badaude eta.

### Elkarbizitza lantzeko eguna

Eskola komunitate osoa ezagutzeko eta giro atsegin eta osasungarria hedatzeko helburu duen "Elkarbizitza Eguna" ospatuko dute Plaentxi Herri Ikastetxean, maiatzaren 31n. Festa, irakasleek prestatutako txotxongilo emanaldiarekin hasiko dute eta jarraian, ipuin kontaketa saioak, bideo-emanaldiak, tailerrak, horma-irudi margoketak eta merendola antolatu dituzte parte hartzaileen gozagarri.

**Javier Alberdi**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**Zero Zabor" taldea aurkeztu dute** Eguaztenean aurkeztu zuten taldea eta "hurrengo belaunaldiei jaso dugun mundua lagatzearen alde" lan egingo dutela adierazi zuten. Ekainaren 1erako, "Eman hartu nahi duzun mundua" leloarekin Mundumob izeneko ekimena iragarri dute.



**Irakasleak murrizketen kontra** ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak deituta, Plaentxi Herri ikastetxeko irakasleek elkarretaratzea egin zuten aurreko barixakuan, "LOMCE-ren aurka, lan badintza duin eta eskubide sozialak babestearen alde". Bestetik, Gipuzkoako metalgintza hitzarmena "hiltorian" dagoela eta berau indartzeko mobilizazioak iragarri ditu LAB sindikatuak. Sorluzen propaganda banatzeko maiatzaren 3an batuko dira, 19:00etan Plaza Barrixan.



**Plazara Eguna maiatzean** Euskal Preso Politikoen Herriratzeta eskatu eta dagozkien giza eskubideak errespeta daitezzen aldarrikatzeko "Plazara" ekimena burutuko du aurten bigarren-egoz Herrira mugimenduak maiatzaren 19an. Eguerdie partean Plaza Zaharra herritarrez betetzea da asmoa eta besteak beste, "mural margoketa" eta "ekimen parte hartzaileak" izango dira.

**Etxabe Harategia**  
Euskal txahalkia Bildotsa  
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 23 75

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**  
Ezozu Auzoa 11  
20590 Sorluze  
T. 943 75 10 02  
SUKALDARITZA TRADIZIONALA

## Bestelako hezkuntza eredua deskubritzeko

Hezkuntza alternatiboaren inguruko hainbat mahainguru eta ekimen antolatu ditu Gaztetxeko formazio taldeak maiatzeko. Hezkuntzaren inguruko galderak daude ekimenaren oinarrian: "zer ulertzen dugu hezkuntzaz?" edo "autonomo edo kritiko izateko hezitzen al gaituzte eskolan?" edo "zerk beldurtzen gaitu bestelako heziketa bat eraikitzerako orduan?" moduko galderak. Hain zuzen, galdera horiendako erantzunak bilatu eta bestelako hezkuntza eredua sortzeko bidean pausoak ematea da antolatzaileen helburua.

### Martitzenetan eta egunetan

Antolatutako ekimenik gehienak mahainguruak izango dira, baina bada tartean umeendako antzerkia ere: maiatzaren 7an, martitzena, "La educación prohibida" dokumentala (laburtua); 14an, martitzena, "Hurbilketa bat hezkuntza sortzailerara"; 16an, eguena, Bizi Toki eta Ur tanta proiektuen aurkezpena; 21ean, martitzena, "Kate begiak" Goñiko udale-

kuen bideoa; 24an, barixakua, "Klariona" umeendako antzerkia (3-6 urte); 27an astelehena, Hezkidetzatza tailerra; 30ean, eguena, Gaztetxearen papera hezkuntza ez formalean.



BiziToki elkarteak Iparraldean abiatu duen esperientzia azalduko du.

## Mbayeren familiarendako dirua hilero

Mbayeren familiari laguntzeko dirua hilero bidaltzea erabaki du otsaileko elkartasun ekimenaren ostean osatu zen jarraipen batzordeak. Guztira 14.000 euro daude gordeta eta formularik egokiena hilean 300 euro bidaltzea dela iritzi diote batzordean. Apirilaren 15ean egin zuten bilera udaletxean eta egun batzuk lehenago Senegaletik bueltatu ziren Bergarako Ndank Ndank elkarteke ordezkariak ere parte hartu zuten. Senegalgo senideekin berba egin ostean, aukerarik egokiena dela iritzi diote Ndank-ekoek. Uztailetik aurrera ekingo diote bidalketari.



Mbaye uztaileko jaietan.

Iturria: Juanma Berrueta

# Bestelako bizi eredua berreraikitzekeo Elkargunea

Herritar talde batek jantoki herrikoia antolatuko du barixakuro gaztetxean. Helburua elkarrekin jatea baino gehiago da; bizi eredu jasangarriago eta elkartasunezkoagoa berreraikitzea.

Azken urteotako beheraldi ekonomikoak lehenago -oparotasun garaietan- ikusezinak ziren arazo asko bistaratu ditu jendartean: langabezia, pobrezia, etxegabe-tzeak... Gaur egun larria da herritar askoren egoera, eta etorkizunak tunel ilunaren itxura du askorendako. Aldi berean, bizi eredu berri eta jasangarriagoak sortzera bideratutako esperientziak hasi dira loratzen han eta hemen; horietako bat da Elkargunea.

## Barixakuro bazkaria

Alkargunearen proposamena sinplea da; barixakuro 13:00etatik 15:00etara elkarrekin bazkaltzea Gaztetxean, "bakoitzak dituen arazoak, kezak, iritziak, ideiak, informazioa... trukatzeko eta aurreiritziak gainditzeko". Nahi duenak parte hartu ahal izango du eta prezioa borontatea izango da -edo dohainik, ezer

eman ezin duenarendako-. Hala ere, esperientziak funtzionatzeko gakoa herritarren ekarpena izango da, hasieran behintzat, janaria herritarrei eta merkatariiei eskatuko dietelako. Bilketa eguaztenetan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara Gaztetxean.

Krisia gaur egunean nagusi den bizi eredu "indibidualistaren" ondoan bestelako bizi-filosofia berreraikitzekeo aukera moduan ikusten dute: komunitatea, elkartasuna, auzolana... moduko baloreak oinarri izango dituen bizi eredua.

**Barixakuero  
elkarrekin bazkaltzeko  
aukera izango da.**



## ► JAKINGARRIAK

### AUZOLANA HERRIAN

Orainsu arte oso ohikoa izan da auzolana herrian. Erabilera publikoa duten hainbat lan auzolanean eginak dira eta bestelako zereginak garatzeko ere egin izan dira. Hona esanguratsuenetako batzuk:

- **Ermitek:** San Roke, Irure ermita...
- **Iturriak:** Elizburukoa, Askabeittikoa...
- **Lokalak:** Gaztetxea, San Andresko lokala...
- **Hezkuntza:** Soraluzeko Ametsa Ikastola
- **Baserriko lanak:** gari-joteak, bide garbiketak...
- **Elkartasun ekimenak:** Uholdeak, Mbayeren heriotza, Herrira...
- **Bestelakoak:** ibai eta mendi-garbiketak...

### KOMUNITATEA

"Komunitatean bizitzea naturala da eta beharrezkoa gizakiak bizirauteko. Gaur egun, benetako komunitatea norbanako bakoitzaren garapen pertsonala da eta horretarako ezinbesteko baldintza da konfidantza. Eta komunitatea bitarteko ezin aproposagoa izan da eta da konfidantza eta elkartasuna sortzeko."

*Dieter Duhm*



# “Jendeari adierazi nahi diogu ez dagoela bakarrik!”

**Oier, Ilargi, Sara eta Regina**  
Elkargunearen bultzatzaileak



Zer esan nahi duzue “bestelako bizi eredia berreraiki” edo “komunitate izaera berreskuratuz” behar dela diozuenen?

Oraingo ereduak prekarizatu egiten gaituela begibistakoa da. Ez bakarrik ekonomikoki, baita pertsona moduan ere. Beste balore batzuk indartu behar dira bizi dugun indibidualismoa sahisteko. Horretarako ezinbestekoa da kolektibotasunean aurrera egitea, hau da, komunitate izaera berreskuratzea. Jendeari adierazi nahi diogu ez dagoela bakarrik. Elkartasuna bultzatu nahi dugu, familia eta lagunez gain, sare zabalago bat lortuz. Horrela ekimen asko atera daitezke aurrera.

Zein herritar mota espero duzue edo nahi zenukete etortzea?

Guztiok dauzkagu atea zabalik: gazte, emakume, heldu, etorkin, jubilatuz... Aniztasuna bilatzen dugu, denok beharrezkoak

garelako. Esperientzia berriak ezagutu eta elkarrekin gure bizitzak aurrera ateratzeko ahalegina egingo dugu. Jantoki herrikoia ez da benefizientzia hutsa. Parte hartze aktiboa bultzatuko dugu, bai eztabaidetan eta baita jantokiko lanetan ere.

**“Elkarrekin gure bizitzak aurrera ateratzeko ahalegina egingo dugu”**

**“Herritarrek izan ditzaketen beste proposamen batzuk entzuteko gertu gaude”**

Merkatariei eta herritarrei laguntza eskatuko diezue, zergatik?

Bestela, proiektu hau aurrera ateratzeko behar den janaria lortzeko bitartekorik ez dugulako. Beraz, herritarrei zera eskatzen diegu, bakoitzaren posibilitateen arabera janari ekarpenak egitea elikagaien banku txiki bat osatzeko. Esperientziak aurrera egin ahala, beharbada antolatzeke beste modu batzuk bilatu beharko ditugu. Herritarrek izan ditzaketen beste proposamen batzuk entzuteko gertu gaude.

## Elkartasun ekimenetan jardundako herritarren iritzia

**Emilita Altuna**

Oso ideia ona irizten diot. Badago premia galanta horrelakoak antolatzeke. Jende asko dago gaizki momentu honetan baina lotsagatik edo, ezkutatu egiten du. Nik jatekoa ematen diot mutil bati, bestela non jan ez dauka eta. Esango diot barixakuetan behintzat izango duela non bazkaldu. Nere partetik, animo guztiak.



**Joxean Iñurrieta**

Hasteko txalogarria deritzot, badirelako lanerako gertu dauden gazteak. Elkartasun ekintzak, edo hobe, elkarbizitzaileak, beharrezkoak dira aro indibidualista honetan. Zoritxarrez gure gizartean nork proposatzen duen indar handiagoa izaten du zer proposatu duen baino. Hala ere, somatzen dugu Gaztetxean badela zerbait jarri diogun etiketarekin bat ez datorrena. Pausoak emanaz egiten da bidea.

**Onintza Elgeta**

Oso ondo iruditzen zait jantokiaren ideia eta helburua. Egoerari begiratuta, eta gauzak zela dauden ikusita, beharrezkoa da holako ekimen bat antolatzea. Astero egitearena gehiegitxo izan daiteke baina ea jendea animatzen den eta dena ondo doan. Oraindik ere lotsa ematen digu horrelako gauzetan parte hartzeak baina lotsak kendu beharra dago.



**Alberto Iñurrieta**

Txoriak bezala hegan egiten ikasi dugu, arrainak bezala igeri egiten, baina ez dugu ikasi elkarrekin anaiak bezala bizi izaten (Martin Luther King). Ea Elkargunea den proposamen honek laguntzen digun etxeko atea zabaltzen eta duguna konpartitzen, hori baita bidea herri bezala aurrera egiteko. Zoritxarreko krisiari buelta emateko, irudimena eta Elkargunea bezalako proposamenak dira bidea. Zorionak Gaztetxeari!

Udalak hutsik dauden etxebizitzaren IBlari %75eko igoera ezarri dio aurten (100 euro katastroan 50.000 euroko balioa badu). Etxejabeak euren etxebizitza hutsak -254 Soraluzen- alokairuan edo salgai jar ditzaten bultzatzea da helburua.

## Zer irizten diozu etxebizitza hutsen zerga handitzeari?



Maite Bayona

Neri ez dit eragiten, baina ondo iruditzen zait alokairua bultzatzea. Jendeak aukera izan behar du independentziaz bizitzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da bigarren etxebizitza erosteko ahalegina egin duenaren egoera ere.



Miguel Criado

Ondo eta gaizki. Baina logikoa iruditzen zait. Etxeak funtzionamenduan izatea komeni da. Nik bi etxe ditut alokairuan emanda. Bat paperak egin barik zegoen eta oraintxe egingo ditugu.



Mari Kamen Oñate

Ondo iruditzen zait. Horrenbeste etxe hutsik izanda berriak egiten jarduteak ez dauka zentzu handirik. Hobe da hutsik dauden etxeak betetzea. Gainera etxeak ere hobeto mantentzen dira baten bat bizi bada.



Jaime Aristi

Oso gaizki iruditzen zait. Etxea duenak zergak ordaintzen ditu eta legeak agindutakoa betetzen du. Ni ere ados nago etxeak beteta izan behar dutela, baina hutsik baldin badu zeozergatik izango da. Igoera larregizkoa iruditzen zait.

garrailo publikoa  
**Gipuzkoa**

Pertsona guztien mesederako tarifa bateratuak.

Garraio-aldaketak baldintza onetan.

Erabileraren araberako deskontuak.

Talde berezietan zuzendutako hobariak.

**Mugirekin, zu irabazle**  
Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.

**TCG** Transporte Garaia Gipuzkoako Garraio Publikoa Departamentuak: Garraioa, Turismoa eta Berrikuntza / Departamentuak: Turismoa eta Berrikuntza, Garraioa eta Lanpostuak

**i** 943 000 117  
[www.mugipuzkoa.com](http://www.mugipuzkoa.com)

## Kirol emaitzak

### PELOTA

Xala – Laskurain	8
Aritz Lasa – Barriola	22
Gallastegi – Urkiri	10
Ataungo bikotea	16
Fernandez – Tajuelo	9
Tolosako bikotea	18
Irureta – Aldape	22
Arrasateko bikotea	8
Kortabarria	22
Bergara	10

### FUTBOLA

Ordizia – Sora (Erreg. Pref.)	1-3
Saillapenean 4.na, 1.etik 7 puntura	
Erregionalak deskantsua	
Saillapenean 3.na, 1.etik 6 puntura	
Sora (Jub.) – Arizmendi	6-2
Saillapenean 5.na, 1.etik 5 puntura	
Zestoa – Sora (Kad. Mut.)	3-1
Saillapenean 4.na, 1.etik 24 puntura	
Allerru – Sora (Kad. Nesk.)	6-0
Saillapenean 7.na, 1.etik 21 puntura	
Sora (Inf. Nesk.) – Zumaiako	2-1
Saillapenean 2.na, 1.etik 5 puntura	

## Agenda

### PELOTA

Gaur, 19:15etan Aranen  
Urkiri – Gallastegi  
Azkoitiko bikotea

Gaur, 18:30ean Zizurkilan  
Tajuelo – Fernandez  
Zizurkilko bikotea

Domeka 28, 17:00etan Bilbon (etb1)  
Xala – Laskurain  
Idoate – Begino

### FUTBOLA

Domeka 28, 17:15ean Ezozin  
Sora (Erreg. Pref.) – Anaitasuna

Zapatua 27, 16:00etan Unben  
Eibartarrak – Sora (Erreg.)

Zapatua 27, 13:30ean Unben  
Eibartarrak – Sora (Jub.)


Domeka 28, 11:30ean Ezozin  
Sora (Kad. Mut.) – Aurrera

Zapatua 27, 11:45ean Ezozin  
Sora (Kad. Nesk.) – Vasconia

Domeka 28, 10:30ean Iraetan  
Zestoa – Sora (Inf. Nesk.)

## Gipuzkoako 80 bolari lehiatuko dira San Andresen

Martxoan ekin zioten Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa lehiatzeari eta guztira hogeita bat taldek eta 80 bolarik dihardute lehian. Soraluzeko San Andres taldeko ordezkariak hama-seigarren daude taldekako sailkapenean eta sailkapenen orokorrean Jose Luis Larreategi lortu du herrikoen artean posturik onena, hamazazpigarren sailkatuta. Maiatzaren 4an San Andres auzoko bolatokian arituko dira eta finalurrekoa ekainaren 1ean jokatuko da, Ezozin.



Jose Luis Larreategi, hirutxirlotan.

## Errealzaleen X. urteurrena lagunartean

Martxoaren 23an kolore txuri-urdi-nez jantzi ziren herriko kale eta bazterrak, egun hori aukeratu baitzuten herriko Errealzaleek elkartearen X. urteurren festa ospatzeko. Sagardo kupel erraldoia zabalduaz hasi zuten eguna eta Gorritiren abereak, puzgariak, lagun arteko bazkaria eta kalejira izan zituzten, besteak beste.

Iturria: Altuna



## Soraluze Saria maiatzaren 4an jokatuko da

Soraluze Txirindulari Sariaren XVI. edizioa joan den otsailaren 24an zen jokatzea baina eguraldi txarragatik frogabertan behera laga zuten eta maiatzaren 4rako zehaztu dute data berria. Parte hartzaileak, goizeko 9:45ean Estaziño kaletik abiatuko dira eta San Andres au-

zoan bukatuko dute, 12:30ak inguruan. Debabarrena taldean lehiatzen diharduen Xabier Gallastegi soraluzetar gazteak lasterketan parte hartzeko "gogo eta motibazio handiak" dituela aitortu du eta zailtasunak zailtasun, fin aritu eta froga ondo bukatzea espero du.

**MGS Seguros**

**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: lmnieves@mgs.es  
www.mgs.es

Komertzioetarako web orriak disenatzen ditugu, kalitatezkoak eta merkeak. **70€**

**Mendata**

**Giro euskalduna**  
Etxean egindako pizzak eta txapiroak

## Euskal Aratosteetan jasotako irudien erakusketa

Iturria: Aitziber Mayo



Kastetxeko neska-mutikoei Euskal Aratosteetan ateratako hogeita hamar argazkiz osaturiko erakusketa zabalduko du, maiatzaren 7an, Kontrargi Argazki Kolektiboak. Zehazki, Aitziber Mayo, Carlos de Cos eta Joaquin Ruizen irudiak jarriko dituzte ikusgai. Kalejirako giroa, taldeko argazkiak, autorretratuak, dantzaldiak edota txokolatadak lagatako poz aurpegiak ikusteko aukera izango dute kiroldegiko erakustaretotik pasatzen direnek. Iru-diak maiatzaren 18a bitartean bisitatu daitezke, astegunetan 19:00etatik 20:30era, 12:00etatik 13:30era zapatuetan.

## Ezoziko Ama abesbatza Elgoibarko Alarde Egunean

Maiatzaren 18an, zapatua, Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatutako txistularien Alarde Egunean emanaldia eskainiko du Ezoziko Ama abesbatzak, Azkoitiko Iaur-

gi eta Elgoibarko parroko koroekin batera. 12:30ean txistulariek kalejira egingo dute eta jarraian, gonbidatutako abesbatzek bederatzi abesti interpretatuko dituzte, dantzarien laguntzaz.

Iturria: Jon Basauri



Ezkaraira egindako irteeran ateratako argazkia, irudian.

## Kultur agenda

**Maiatzaren 2tik 31ra**

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA  
Oinarriak udaleko kultura zerbitzuan  
Informazioa: 943 75 30 43  
Ant: *Gaztetxea*

**Maiatzak 5, domeka**

IRUKURUTZETA EGUNA  
11:00etatik aurrera, Irukurutzetan  
Ant: *Atsedentsabolekako lagunak*

**Maiatzaren 7tik 18ra**

ARGAZKI ERAKUSKETA  
"Sorraluzeko euskal aratosteak"  
Kiroldegiko erakusketa aretoan  
Ant: *Kultura Batzordea eta Kontrargi*

**Maiatzak 13, astelehena**

BERTSO SAIOA  
LHko 4. eta 5. mailako ikasleak  
17:30ean, Zinean  
Ant: *Udaleko Euskara Batzordea eta Plaentxi LHI*

**Maiatzak 16, eguena**

IPUIN KONTALARIA  
17:00etan liburutegian  
Ant: *Udal liburutegia*

**Maiatzak 22, eguaztena**

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN  
AUDIZIOA  
16:00etan, Zinean  
Ant: *Musika Eskola*

**Maiatzak 24, barixakua**

KONTZERTUAK  
Diswar, Proto Kukaraxo eta Gaitze taldeekin  
22:00etatik aurrera, gaztetxean  
Ant: *Gaztetxea*

**Maiatzak 26, domeka**

XX. KALEKO MARGO LEHIAKETA  
Goizeko 9:00etatik aurrera  
Ant: *Udaleko Kultura Batzordea*

**Maiatzaren 27tik 31ra**

PINTURA ERAKUSKETA  
Kaleko margo lehiaketako lanak  
Kiroldegiko erakusketa aretoan  
Ant: *Udaleko Kultura Batzordea*

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errebal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

## Zorion agurrak



**Irati Oregi**  
Apirilaren 10ean urtebete  
Segi etxean irribarreak sortzen!  
Zorionak preioxal! Etxekoan partez.



**Aiara Cortes**  
Zorionak tiki eta patxo  
haundi bat etxekoan partez!



**Anahi Maquinay**  
Apirilaren 20an urtiak betetzen  
dittuzulako. Milloi bat patxo  
familixian partetik!



**Lore Leturiondo**  
Apirilaren 11n 8 urte!  
Zorionak eta muxu handi  
bat etxekoan partez!



**Andoni, Ekain, Ioritz eta Mariaje**  
Apirilaren urtiak bete ditzuzelako, muxu haundi bana eta besarkada pila,  
etxeko danen partetik!



**Igor Bedaio**  
Apirilaren 18xan 9 urte!  
Muxu pila mutil haundi,  
etxekoan partez!



**Ander Sanchez**  
Apirilaren 25ian 6 urte!  
Zorionak eta muxu erraldoi  
bat etxekoan partetik!



**Ander Gómez**  
Apirilaren 24an 18 urte.  
Beti moduan jarraitu maiz!  
Gure bizitzako alaittasuna zara!



**Eider Varela**  
Apirilaren 22xan 30 urte. Merezki  
daben moduan ospatuko!  
Muxu bat etxekoan partez!!



**Zorionak June, Ane, Ivan eta Maria!**  
Mila kilo zorion eta patxo zaparrada!



**Zorionak Mari eta Pili!**  
Besarkada eta muxu haundi bat  
Karropotes kuadrillian partetik!



**Arkaitz Larrañaga eta Maddi Maiora**  
Apirilaren 20xan eta 22xan 40 eta 7 urte!  
Zorionak bikote!! Urriak aurrera doiaz.  
Patxo haundi bana familixekoan partez!!



**Zorionak Galder eta Maddalen!**  
Apirilaren 13an eta maiatzaren 1ian 9 urte eta 12 urte  
betetzen ditzuzelako, jaso gurdikada bat patxo  
familixian partetik! Horrelako jatorrak izaten jarraitu!



**Maddi Plata**  
Martxuan 29xan 9 urte!  
Zorionak politxor!! Patxo potolo  
bat etxeko guztion partez.



**Ezosi eta Anton**  
Apirilaren 1ian 10 urte!  
Zorionak maitiak, patxo  
askokin etxekoan partez!

## Jaiotakoak eta hildakoak



**Ametz Uzin Zubizarreta**  
**Naroa Mouro Peñalver**  
**Sugoi Zubizarreta Rebueta**



**Jesus Mari Berrueta Elizburu**  
**Maria Lersundi Orueta**  
**Cipriano Martinez Lijo**

## Lehiaketa

**Zein da?**



**Saria:**  
**Argia**  
Mihiluze  
mahai jokoa.

### Aurreko aleko erantzuna

Yoana Azpirte, udaleko berdintasun teknikaria.

### Irabazlea



Ion Oñederra

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea  
etara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Sabino Perez de Labeaga

## Sabin Garitagoitia Larrañagaren omenez

1930.hamarkadako argazkia da. Sabin Garitagoitia Larrañaga (1914-1937) soroluzetarra ageri da bertan, Itxarkundia batailoiko gudaria, Legutioko -Villarealgo- bataila ezagunean (1936ko negua) -Orisol mendian- zauritu eta Gernikan bizia galdu zuena. Gernikazarra elkartearen arabera, Sabin eta G. Ondarza -Agarrebolu baserriko semea- soroluzetarren gorpuak Gernikan lurperatu zituzten, beste 60 gudari gipuzkoarrenekin batera (Irati Sarasua. *Hezurren Hautsa*. 2013/03/27 Berria). 1958an frankistek hezurak lekuz aldatu omen zituzten ezkutuan,

baina lurperatzaileak izen guztiekin osatu zuen zerrendari esker -geroztik bi aldiz ezabatuta agertu dena- jakin da zeinen gorpuzkinak zeuden han.

Hilerrian bi plaka omen daude, horietako batek honela dio: *Sabin Garitagoitia Larrañagaren omenez. Itxarkundiako gudariei besarkada bat. Libe Garitagoitia* -Sabinen arreba-. Sabinen senitartekoeak baieztatu digute urtero joan izan direla Domusantu egunez Gernikako hilerrian loreak lagatzera. G. Ondarzaren senideak Zarautzen bizi dira gaur egun.



**NIKANOR INURRIETA GOIKOETXEA**  
2013KO MARTXUAN 12XAN HIL ZAN

*"Gure albotik juan zara,  
baina ez zara inoiz gure bihotzetan faltako.  
Beti egongo gara batera Aitxi,  
zu izan zahalako baikara gu.  
Asko maitte zaittugu"*

Etxekoak



**ALBERTO GALARRAGA IBARROLABURU**  
EIBARREN ZENDU ZEN APIRILAREN 16AN

*Zerka baztarrekua  
Santa Ana kalekua  
musikan ibilittakua  
kantari benetakua.*

Plaentxiako hire lagun koadrila

# Elgoibar Arreiturre BHI 2013-2014 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net  
www. elgoibarbhi.net

## BATXILERREKO ESKAINTZA

### ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak  
Zientzia eta teknika

### HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak  
Humanitateak

## AURREMATRIKULAKO DATAK:

MAIATZAREN 2TIK 14RA



Gurasoekin bilera:  
Apirilaren 29an, arratsaldeko 18:30ean, Soralezeko Institutuan.



# Ignacio Zuloaga Institutua

## EIBAR



## Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak



Alemania - Ingalaterra



# MUNDU**m**

Eman hartu nahi duzun mundua



Ekainaren 1ean Soraluzen  
Zubi Nagusian



DONOSTIA Ekainak 8

## MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara



MAI-ko APLIKAZIOA  
ZURE MUGIKORREAN!

[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)  
Laboragailuaren  
Erabilgarritasuna



**AURRE-MATRIKULAK:** Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra  
**ATE IREKIAK:** Maiatzak 25, 11:00etan.

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera, 8:00etatik 14:30etara  
eta 15:30etatik 18:30etara  
Ostiraletan, 8:00etatik 14:30etara

Ibargarai, 1  
20570 Bergara  
943 76 38 40/943 76 24 91

[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)  
[imaltuna@saremail.com](mailto:imaltuna@saremail.com)

